



"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Seigarren urtea — Pamplona, Febrero-1971 — Otsaila, Iruña — 60 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

SARAGUETA-KO MARGOLAK

Duela bizpahiru ilabete, P.V. Urriko zenbakian, Saraguetako elizan aldare nagusiko margolak (pinturak). Eta ez zen itsu-itsura mintzatu:

1.º) Koloreak oso ongi banatuak eta ezberdinak ikusi zituen. Eman zien egileak, bai indarra eta bizitasuna; bai ta ere ederraren egokitasun atsegina.

2.º) Jende eta betegarriak mailaka ezarriak dira. Aurrez aurre, garrantzi haundienekoak; atzerago, bigarren mailakoak, eta urrutitan batean besteak.

3.º) Aurpegiaren indarra, beste alde. Hizketan eta bizirik zeudela ematen omen zuten. Ibilkari eta, gainera, ikasia danez, Europa aldeko bilduma asko ezagutzen ditu eta «Holbein» haundiaren kutsua ikusten zien. Hau zen, laburenez, orduan esana.

—oOo—

Artzibar galdua

Aoit-dik Auritze-ra bideko herriak nituen nik, Artzibarren, ezagutzen. Ezker eskuin, mendi gallur eta muno latzak bizibide gogorren aurpegia erakusten digute. Artean berri, bidetik kanpo, mendira begira egin du bere bizia, ikusten ez den Artzibar galduak. Azaroan ginen Saraguetan, Uranga lagun, «Ugain-borda» eta biok. Egun ederra gertatugatik, ez zen berorik herrian. Nortasun haundiko etxeak, eta denak ustutzen ari. Eliz atzean, lapin (konejuen) hazkuntzako kutxatilla saredunak, hutsik. Haurrik gabeko herria. Baztarrak ixil.

Noizbait, etxeoandre gazte baten burua atal-leihotillatik. «Ugain-borda» konturatu da lehenik, eta aspaldiko laguna bezela, aitona zaharraren berri galdegin dio. Ez, ez da hila; lau famili hoiek han diren bitartean bizi da Saraguetako herria. Noiz arte?

—oOo—

Margolak

Han ziren elizako margolak, izan ere, hautsez estaliak. Argazki sail bat atera genien. Nere lagunaren zirikadak ez zuten erantzunik izan. Gure lana eginik, eguerdiko Iruñen



ginen. Airean, ba dela ez delakoaren zalantza ernari betea. Madril-go Prado margoltegiaren erabaki beharra zen auzia.

—oOo—

Madril-go erantzuna

Zonbait egunen buruan jakin dugu ikasien eritzia. Saraguetako margolak lekukoak dira. Nafarroan ba omen ditugu tankera hortako beste zonbait. Batzuk besteak baino hobek, jakina; eta hauek ez dira txarrak. Beraz, ba da nafar ederti eskola bat.

Ni nere arira nijoa; nork esan, sagarmina pagadian bezela mendian galdu-ta dagon herritxo batek, halakorik ba zeukanik? Nafarroa ikusgarri dela esaten duteneri sinesten hasi beharko... eta bitartean, herritxoak odol-usten ari! Usategi edo arrano mendi?

J. M. Satrustegi



Nafarroko Diputazioaren Erabakia

IKASTOLAK

1970-ko Urriaren 16-an hartutako Erabakien bidetik jarraituz, Nafarroan euskerari eutsi ta erakusten saiatzeko jokabidea mugatzen duten xehetasun hauek onhartzen dira:

1.º) Erabakia aurrera eremateko azterketa eta, be-tearazteko neurriak Diputazioari jasoko dizkion **Elkargo bat sortzen da**.

Elkargo honen **berezko Lendakari**, Nafarroko Diputazioan buru egiten duena izango da; eta **Lendakari orde-zko**, Nafarroko Irakaskintza guziko ardura duen Diputatu jauna.

Laguntzaile:

- Principe de Viana-ko Diputado jauna.
- Principe de Viana-ko Zuzendaria.
- P. de Viana, Euskeraren saileko batzarkideak.
- Diputazioaren Irakaskintza lanbidetako burua, idazkaritza bere gain duela.

Elkargo honarako, Nafarroan Inspektor delako norbait izendatu dezaten eskatuko die, Diputazioak berak, Agintarieri.

2.º) **Elkargoaren eginkizun bereziak.**

- a) Irakaskintzako Agintariek hizkuntza herrikoienganako dituzten xedeak, Nafarroko euskerari dagokionez betetzen laguntzea.
- b) Behar ba da, bitariko irakaskintza, alegia euskera eta erdera berdin sartuko liraken ikastetxeak, edozein mailetan sortzeko Diputazioari eskatzea.
- c) Bai ta ere, komeni ba da, era hortan zabalduak diren beste ikastetxe batzuentzat Diputazioari laguntza eskatzea. Ayundamenduen babesan idekiak eta bertako Maisuen eskutan daudenak izango dute begiramendurik haundiena. Laguntza esatean, bai diru aldetik, eta bai babes eta teknika aldetikakoa esan nahi da.
- d) Euskera mintzo den herrialdetako Eskola-bakuntzetan eta Diputazioak berak sortutako Lurgintza eta Tekniko ikasgotan, 1967-ko Urtarrilaren 25-eko Erabakiak betetzeko komeni dena Diputazioari agertzea.
- e) 1970-ko Urriaren 16-ko Erabakiari buruz egitea komeni dela ikusten duen beste edozein jokabide Diputazioari agertu eta, Irakasleen jakintza ta gaitasunari dagokionez arduratzea.
- f) Batez ere, Diputazioaren Erabaki hauek nola betetzen diren begiratu beharra izango du beti Elkargo honek.
- g) Principe de Viana, Euskeraren saileko batzordekide lehenak, idazkariarekin hartu-eman estuan, eragingo ditu eginkizun hauek, eta Elkargoari beharrezko direnen berri eman eskabideak sortzeko. Esandako biak, Elkargoko Diputado jaunarekin izango dira Batzorde Egongarria osatzen dutenak.

3.º) Erabaki hau Nafarroko Boletin Ofizialean argitaratua izango da.

Iruñen, 1971-ko Urtarrilean

EUSKAL HERRIKO LEIOA

NORBERTO ALMANDOZ MUSIKALARIA IL DA

Sevillan Abenduaren zazpigarrenean Astigarragako seme zan Norberto Almandoz apez eta musikalaria famatua il zan irutan ogei tamasei urte zituelarik.

Almandoz jaunak musikako ikasgoak egin zituen. Urte askotan Sevillako kalonje ta organista izan zan. ABC egunerokoan musikari buruzko gaiak eramaten zituen. Sevillako «Conservatorio de Musica» delakoaren zuzendaria izendatu zuten 1936 urtean eta kargu hau bere bizkarrean eraman zuen orain zazpi urterako bere adinarengatik utzi behar izan zuelako. Sevilla bertan eortzia izan da. G.B.

EUSKAL LEHENBIZIKO NOBELA ETA JOANNES ETCHEBERRIEN «NOELAK» ARGITARATUAK

Donostiko «Caja de Ahorros Municipal» delakoak euskal kulturaren bideak irikitzen lagundu nahiez euskaraz idatzitako bi liburu argitaratu berri ditu: Bata, Donibaneko Lohizuneko Daskonagerre jaun zenak

idatzi zuen «ATHEKA GAITZEKO OIHARTZUNA» izeneko lehenengo euskal nobela, eta bestea, 1630 urtean Joannes Etcheberri jaun zenak izkribitu zuen «NOELAK» deritzana. Azken liburu hau Axular aundiaren «GERO» izeneko liburu bano zaharragoa da eta orain alerik ere ezta inun arkitzen.

«EUSKAL KANTA BERRI»-REN SARIKETA

Aurten «EUSKAL KANTA BERRI»-ren Sariketa bat ospatu behar da. Euskal Herriko lau Iruburuetan (Donostian, Iruñean, Bilbon eta Gazteizen) saio bana egingo dira eta Azken Nagusia Gipuzkoako Mondragoi (Arrasate euskeraz)ko herrian izango da.

«HISTORIA DE LA MUSICA MEDIEVAL DE NAVARRA» LIBURUA

Gure Diputazioak «HISTORIA DE LA MUSICA MEDIEVAL DE NAVARRA» deritzan liburu interesgarria argitaratu berri du. Higinio Angles il berri denak izan da liburu

honen egilea. Preziski arestin Erroman il berri zaigu (G.B.).

462 orrialdeko liburu da.

JULIO CARO BAROJA'REN LIBURU BERRIA

Julio Caro Baroja jaun yakintsak Nafarroako «ETNOLOGIA ETA ETNOGRAFIA»-ri dagokion liburu bat bukatu berri du. Laister argitaratuko da; orain Inprentan prestatzen ari dira.

«EZ DOK AMAIRU» KANTARI TALDEA BERRIZ ERE TAFALLAN

Urtarrilaren emeretzigarrenean, Sebastian Sainduaren bezperan, Tafallan «Ez dok amairu» izeneko kantari talde famatuak berriro eta exitu audiakin bere euskal kantu ederrak kantatu zituen.

«Alaitz» izeneko Mendi-Elkartea izan zen Euskal Kantaldi hau antolatu zuena. Pedro Sainduaren Elizaren areto ederrean gendez bete izan zelarik ospatu zan.

«Ez dok amairu» talde honen kantari ezagunak Tafallako gendeari txalo ugari atera erazi zizkieten zergaitik gure Erribera asten dan herri hontan euskal giroa Jaunkoikari eskerrak usain egiten da alde aunitzetik.

Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi, Joxe Angel Irigaray eta Xabier Lerte aritu ziran. Ordu terdiko kantaldia eman eta gendea atseginez egona.

Tafallatarrak, zorionak!

EUSKAL ALDIZKARIAK

Gure Euskal Herria maitean euskeraz idatzitako aldizkariak (Errebistak) badira aunitz. Batzuek astekariak, hau da astean behin argiraten direnak; beste batzuek amabost egunean behin agertzen dira; besteak ilean behin, edo ile-rokoak dira, eta badira ere iru ilean behin ateratzen direnak.

Saiatuko naiz oraintxe Aldizkari guzien, edo gehien behintzat, izenak jartzera:

«HERRIA», Baionakoa, Asterokoa.

ZERUKO ARGIA

«ZERUKO ARGIA», Donostikoa, Asterokoa.

«ANAITASUNA», Bilbokoa, Amabosterokoa.

«PRINCIPE DE VIANA», Iruñekoa, Ilerokoa.

«OTHOIZLARIA», Beloc-ko Beneditarrarena, Ilerokoa.

«GOIZ ARGIA», Tolosakoa, Ilerokoa.

«GURE HERRIA», Baionakoa.

«KARMEL», Amorebietakoa, Iru ilabetekoa.


«OLERTI», Amorebietakoa, iru ilabetekoa.

«YAKIN», Arantzazukoa, iruilabetekoa.

«EGAN», Donostikoa iru ilabetekoa.

Hauei, eta ustegabeen hemen jarri ezditutenei nere agurrik berroenak.

Ikusle



ELIZAREN ITZA

Eliza gaurko munduan

Gudaren zipliztiñak lekuetan ta bildurak denetan sortzen ari dira gizonen arteko ikareri ta ezin egon bat geroago ta bildur-garriagokoa. Geroago ta batuago, bata bestearrekin, mundu berri bat, giza giro bat eratu nai, ta ezin lortu, denak ziñezko pake bat, bene benetan billatzen ez duten bitartean.

Orrengatik, gaur gaurko diztira dario Kristok mendiko itzaldian izai (piztu) zuen argiari esan zuenean: «Zorionekoak pake-asmatzaleak, Jainkoaren seme deituko dira-ta» (Mat. 5, 9).

Orrengatik Eliz Batzarrak pakearen egizko muñ eta mamia azaldu nai du ta gudaren nabarmena apurtu, kristau guztieri oiur larri bat egiñaz, pakearen iturri dan Kristo lagun dutela, borondate oneko edozein gizonekin elkartu ditezten pakea sendotzen, zuzentasun, ta elkarren maitasunean, ta pakearen tresnak prestatzen.

Gudarik ez egotea, ez da pakea, ezta indar berdintsuek talka ez ekitea elkarren bildurrez, ezta ere gogorragokoa besteak mendean artzea, egizko pakea zuzentasunaren ondorioa da (Ys. 32, 7) gizadiari Jainkoak ezarritako neurria, ta gizonen esku utzia zuzentasun ori. Bete bete izan dedin.

Jaungoikoaren Betiko Legean du onarri, gizon guztien ona elburu: gizonen gora berak aldatzen bait dira ordea, pakea ere denboren arora berritzen joan behar da. Gañera pakeari eustekotan, bakoitzak bere gaina gaiztoak menderatu behar ditu, gizonaren naimena erorkorra ta pekatuaren ustelak joa baita, aginteriek ere erne egoten ahal dira.

Hau, ere ez da aski ordea; lurrean pakea ezartzekotan, bakoitzaren ona seguratu, ta bata besteari animako aberatsa ta jakintzaren ederra ezain-ezain banatu behar dizkio.

Beste gizoneri ta besteren errialdeeri begirune ta lotsa gordetzea, ta senide-kiro ar-emanak betetzea, nahi ta nahiezkoak dira pakea eraikitzeke. Ola maitasunaren ondorioa da pakea, zuzentasun soillak baño oparago, guztien ona ugaritzen duena.

Lagun urkoaren maitasunatik sortutako pakea lurrean, Kristoren pakearen erraño ta Aitarengandik datorrena. Baike, Seme gizon egiñak Jainko Aitarekin adiskidetu ditu gizon guztiak, gurutzean besarkaturik, kristau erri bat egiñaz, gorrotoa gaiztetsiz eta piztu ondoan maitasun Espiritua ixuriz gizonen biotzetara.

Universidad popular de verano para aprender Euskera en Oreja

El pueblecito de Oreja, en Gulpúzcoa, auténtico nido de águilas, limitrofe a la provincia de Navarra, es relicario de tradiciones antiguísimas y cuna de Orixe, uno de los mejores escritores en lengua vasca de Euskalherria.

Sus habitantes, trabajadores empernidados y honrados se dedican casi exclusivamente a las faenas del campo, de modo especial a la ganadería.

El lugar ofrece un carácter agreste, montañoso, salvaje. Se encuentra orientado al mediodía, cara a la Sierra del Aralar. El euskera que se habla es uno de los más puros de toda la región.

En lugar tan estratégico, nos proponemos realizar una primera experiencia, única en su género y de consecuencias incalculables para el futuro de nuestro país.

Queremos facilitar a nuestros caseros la ruda tarea de la recogida de la hierba, que se realiza el mes de julio, solicitando la colaboración de trabajadores benévolos de la ciudad y poblaciones urbanas que se ofrezcan a participar en estas labores. Se trata de ayudar en el almacenamiento de la hierba que se recoge para todo el año. Para ello, el casero dispone de unas pocas semanas y le obliga en poco tiempo a realizar un gran esfuerzo. Con más brazos el problema está resuelto. Es ésta una manera eficaz de ayudar al hombre del campo.

El colaborador benévolo de ambos sexos encontrará en contrapartida, el alojamiento y la comida gratis. Le ofrecemos al mismo tiempo la ocasión única de practicar de continuo y sin parar, el euskera, nuestra incomparable, antiguo y riquísimo idioma. Los que vengan vivirán en las familias e identificados con sus problemas.

Muchos eran los que buscaban

hasta la fecha una ocasión parecida. Nos hemos tropezado amenuedo con chicos, chicas y gente madura en busca de una ocasión para practicar el euskera. De este modo creamos dar cauce a las aspiraciones cada vez más premiosas de muchos euskalzales.

Además tenemos la intención de dar a cuantos vengan, una clase de euskera por la mañana y otra por la noche. Se trata de transformar esos días de estancia en el pueblo, en un curso intensivo de aprendizaje de nuestra vieja lengua.

Queremos transformar todo el pueblo en una universidad viva, constituida por todos sus habitantes. Se pretende dar la preferencia al contacto con el pueblo que es la auténtica fuente de la cultura vasca. El ambiente será necesariamente de trabajo, en la época más bonita del año, ante un paisaje inolvidable.

Nos hemos animado a realizar esta experiencia por haber practicado el año pasado un ensayo que ha resultado positivo desde todos los puntos de vista. Hemos tenido alumnos que desconocían por completo el idioma; se han ido entendiendo bastante y haciendo frases sencillas. Este año la experiencia durará veinte días.

Creemos sinceramente que nuestro hombre del campo se sentirá orgulloso de ver que los habitantes de la ciudad se interesan en sus problemas y están dispuestos a tenderle una mano en el trabajo.

Los interesados por esta experiencia, pueden dirigirse al párroco del lugar, para cursar la solicitud. Los puestos serán necesariamente muy limitados.

El Párroco de Oreja (Gulpúzcoa)

Andres Narbarte zanaren eroitzapenez

Andres Narbarte Olaizola, «Shalto» izenordez ezaguna bere herrian. Txemeneko bordan jαιο eta bizi izan da il arte. Berrogei ta lau urtekin il zaigu.

Gizon ezkongabea zan.

Goizuetako seme hau bertsolari oso ona izan zan. Nafarroako Bertsolari Txapelketan irabaztaile edo bigarrena beti gertatzen zan. Beraz Nafarroako bertsolaririk onetakoa, Lasarte ta Arozamenaren parean. Bat bateko bertso egile jatorra, paregabeko gatza ta piperra zeuzkana. Bere abotsak etzion bertso kantatzeari laguntzen; gañerakoak, bertsolari ona izateko behar diran gañerako dohain guziak berez zituen. Aotik ortzerako bertsoak konpontzeko trebetasun, erraztasun eta aisatasuna gure Narbarten sortzetikoak zeuzkan.

Bere eriotza honelako moduan gertatu zan: Narbarte bere baserriko alorretan nekazalgotan lanetan ibiltzen zela sasilar batzuk kendu nahiez sua eman zien. Sua ustegabean indar asko harturik, gehiegi aauditio eta zabaldu zan. Narbarte sua itzaltzen ahal eginez eriotza aurkitu!

GOIAN BEGO.



Bertso horrialde hontan Andres Narbarten paratutako zenbait bertso argitaratzen ditut beraren oroimen eta bere izen ona (ohorea) gure gogora ekarerez.

AGUR BERTSOAK

Lendabiziko artu ditzagun gradorik aundienekoak: Alkate Ayuntamenduari, Obispo, Apaiz Jaun presteoak; oain biotzetik maite ditugun Nagusi Diputadoak, gañerantzeko bertso-entzulek gugana etorritakoak. Eskerrik asko danari eta arratsalde on Jainkoak. (Lekunberrin, 1960-6-26)

—oOo—

Txoko goxo au gure etxetik egonagatik aparte, pozaren pozez zure ondora etorria da Narbarte. Anai-arrebak maitagarriak danak ondo al zerate? Neure biotza ezta lasaitu gaur zuek ikusi arte. (Leitzen, 1961-8-29)

—oOo—

Orain entzuten yarri zaitea goiztar onen berria, damutasunez ez nago bate Bera'ngana etorria. Sortzegatik nola izan dan oso txoko pozgarria, zuri begira ementxe nago ezin aspertuik jarria. Lendabiziko agur biotzez Bera erri maitagarria. (Beran, 1962-9-23)

—oOo—

Len kantatzen izana naiz emen gaur det bigarren urtea, aspalditikan txoko ontako badaukat borondatea. Ez nuan ueste, lore polita, berriro zu ikustea. Nik biotzetik asko nai ditut Agur Areso maitea. (Areson, 1963-5-19)

—oOo—

Erri eder au nola baitegun aundia eta apaiña orrentxentzako beti izan det borondatea biguina. Oraindik emen bizirik dago Euskera xarraren muña, nik orrengatik maite zaitut zu. Agur biotzez Iruña! (Iruñean, 1964-9-27)

APAIZEI BERTSOAK

Geuren Obispo ta Apaiz jaun oiek aitxen dute biotz fiña, errietan zabaltzen ai zaizkigu Jaungoikoaren dotriña. Ezdakigunei erakutsitzen egiten dute alegiña. Beran faltikan ez genduke guk gero jatorrak bagiña. (Lekunberrin)

APUSTUEN KONTRA

Pobria dala gizon onek oain esan digu emendikan; obligatuzten banau pixka bat aituko du ederrikan: Jokatu gabe ez du utzitzen irabazitzen dunikan. Diru kontatzen onek etxean batere ez du lanikan.

—oOo—

Onek gaur diru gutxi duela berak eman digu itza. Bear bezala zer dan ez daki mundu ontako bizitza. Bizio txarra berekin dauka, beti kartera murrizta.

Berriz e pobre egongo zera apustuan bazabiltza. (Lekunberrin)

ESNEARI

Bear bezala gaur naon lekutik egin bear ditut lau itz: aman bularra txupaturikan gaur bertsotan emen gabiltz. Mutil galantak egiñak gaude, gorputzaz ez gaude murriz. Iñor ez leike bizirik egon lagun esnerik ezbalitz. (Lesakan)

EZKONTZEKO GAIA

Pentsamenduan jarrita nago nola izan leitekean; ezkontzeko Narbarte dago guztizko borondatean. Ama ta biok bizi baigera baxerri koxkor batean. Nik andrerikan ezdet artuko izatekotan kaltean.

—oOo—

Au esateko nik ez deraukat gaur aurpegian lotsikan; ama gaixoa iñor e gabe antxen badaukat utzikan. Nik berriz ez det neskaxetako beñere kurajerikan, ark emakume txintxo polit bat artuko nuke pozikan.

—oOo—

Neskaxetako koarde xamarra nola izan nintzan berez, ni ikusita emakumeak egiten baitute iges. Esan zazute, andrea billa asita dagola Andres. Gure etxera juaten dana ezta biziko «aldrebes». (Leitzan)

OFIZIOA EMANDA; NARBARTE NESKA ZARRA ZAN ETA BESTEA GIZON ALARGUNA

Gizon jator bat ondoan daukat oso umilla ta fiña, au neretzako izategatik ein bear det alegiña. Zubi ondoan or ikusita biotzan artzen det miña; naiago nuke milloi bat baño neure senarra baña.

—oOo—

Nik artzen badet alargun on au maitatuko't gogotikan, katillu aundi bat bete kaf'esne emango diot goizetikan, amaiketn e salda beroa atrako det eltzetikan; neure senarrak ezta izango gose ta egarririk.

—oOo—

Au esateko neskaxar onek bat'e ez dauka lotsikan, neure senarra ezta artuko beñere kafe otzikan. Andregai onek ezbeitu egin ortarako promesikan, arrautze pare bat ere oneri jarri nezake pozikan. (Etxarri Aranatzen)

NOLA EGINGO LIOKEN NESKA GAZTE BATI ARTURIK EZKONTZEKO MANDATUA MANDATUA

Etorri ezgeroz begira nago ementxen neskax bateri,

ain da zuri ta gorria eta asko gustatzen zait neri. Beitu batian orren begiak Ama Birjiña dirudi; Badakit eta kariño piskat berak dio Narbarteri.

—oOo—

Zu zera neskax aintxen polita nik emango zaitut ontzat, aspalditikan neure biotza gustatuik dago zuretzat. Gure etxean bada lekua olako neskax batentzat, eta moldatuko ote geraden neri iruditutzen zat.

—oOo—

Oei t'amar ardi mendian daukat etxian dittut antzuak, bi bei bikañak beren txalakin ukullun daukat lotuak; koneju sail bat badaukat eta ausarki dittut olluak. Neskax ederra, zuk non billatu mutil aberatsaguak? (Etxarri Aranatzen)

GERRAREN KONTRA

Nik gorrotuan ezdet ikus nai andre eta gizonikan, ez pentsa emen Narbarten esan bear duenik gezurrikan. Mundu onetan nola ezdegun pake bezelakorikan bide zuzenen jarraitu zagun gerrak ezta gauz onikan.

—oOo—

Orain ez degu Euskal Errian jaunak, lizar makillikan, pentsatu euskaldun gaixoak guk ez daukagula indarrikan. Kararik-kara indarrik ezta, irten da bonba atomikan, naiago nuke ezpalitz muituko lenao dagon lekutikan.

—oOo—

Gerra gaixtua sortzen bazaigu danentzat degu kaltean; gu euskaldunak elkarrentzako bai gauden borondatean. Esan gantzake azi gerala auzotxo polit batean; txarkeri oiek alde bat utzi jarrai dezagun pakean. (Etxarri Aranatzen)

—oOo—

(Donostian, Euskal Erri guziko Bertsolarien Txapelketa batean Fabiola Erreginari buruz Elkarri puntua emanda moduan puntu hau emailak kantatu zion:

«Belgatarren erregin egin da Fabiola»

Baño gure Narbarten, eskola gutxi-gizona izanik, etzion gaiari errespuesta egokia eman. Narbarteren bertsoa onelakoa izan zan:

Igerri diot, Alfonso egia diola; beste gañekoa etzan mintzatuko orla, antxen pensatuzten det zerbait badagola.

(Orduan Narbarte etzan Txapelketan aurrera pasatu eta Teatrotik ateratzean Pedro Diez de Ulzurrun apez jaunari esan zion: *Nor dan Fabiola ori?* Gertaera hau Bertsoszaleen artean bereala barreatu zan). Baño bi urte pasatu ez geroz Goizuetan, bere herrian, Nafarroako Bertsolarien Irugarren Txapelketan Juradukoak Bertsolariei bertsoaren bukaera emanaz bertso guzia egin dezatelako lana jarri zieten. Narbarteri bukaera au tokatu zitzaion:

«Gero juezak irakurri zun sententzia bat larría».

Eta orduan Narbarten aotik ortzera bertso au konpondu zuen:

Ni Donostira neure ustetan joan nintzan bertsolaria,

GOBIERNO DE NAVARRA

aitortuko det dotore asko eskolarikan gabia. Eman zidaten ustegabian Fabiolaren berria, gero Juezak irakurri zun sententzia bat larría.

(Orduan erakutsi zitun Narbarten bere bertsolaritzako doahiak, Alajaina!)

—oOo—

(Lau puntuak emanda bertso osoa egiten gizon prestua ere bazan).

Puntuak:

«Ardiak, erdiak, mendiak, piñudiak» Goseak dabilz Goizuetan aurten e ardiak, neri beintzat il zaizkit ia ia erdiak. itxita baidauzkagu ziaro mendiak, Nik erreko nituzke orko piñudiak!

(Goizuetan)

PUNTUAK JARRITA

Emailak:

Nolakoa nai dezun zure andregai?

—oOo—

Ez dakit zein dan baña badet ikusnaia. Urrutitik aitzen det nik orren usaia. Nai nuke baldin balitz ni bezin lasaia.

(Lesakan)

Emailak:

Ezpañetan daukazu mats beltzaren tinta?

—oOo—

Len itsusia banintzan gaur ez nago polita. Denak ikaritzen dira Andres ikusita. Banijua igesi lagunak utzita.

(Goizuetan)

AZKEN BERTSOAK

Ixilik ezin egon naiz eta atera nua kantari biotz gañeko alaitasun au adirerazten berari. Batek bear dun kopa eder au eman didazute neri; Estimaten det borondatia, eskerrik asko danori!

—oOo—

Neure ondoan ikusten det nik Lekunberriko Alkate; ona da eta gende guziok biotzez baidegu maite; erria ondo gobernatzen du gizon txarra ezta bate; izen ori ez dezala galdu bizirik dagon arte.

—oOo—

Beste bertso bat egin nai nuke Lekunberriko partean; emengo gende onarentzako bai nago borondatean. Bata besteren gorroto txarra geuren buruan kaltean, okasio eta zapuzkeik gabe bizi gaitezen pakean. Orain «adios» beste bat arte Jaungoikoaren onean; entzule danai, Eskerrik asko! beste egun bat artean.

(Lekunberrin)

—oOo—

Bakar bakarrik motzez egonda orain gu gaituk lagunak; Nik onengatik azaltzen ditut

kantari gau eta egunak. Bertsolariak gera izkuntz au bizkortu bear dugunak, bestela laister esango dute ezgerala euskaldunak!

—oOo—

Pentsatzen det agur egiñez emen zerbait esatea; poza artzen det diru mordo au berak neri ematea. Alkate jauna, eskerrik asko, maiez artzen det partea, iñoriz gertatzen baldin bazate Goizuetara joatea, zabal zabalik an egongo da gure etxeko atea; dagonatikan emango'izutet jatea ta edatea; orratx eskeiniz biotz barrendik nik duten borondatea. Entzule onak ondo izanda beste aldi bat artea.

(Etxarri Aranatzen)

—oOo—

Aitortuzera banijua asten eman dituzten ordenak, gu gera Iruñeko Radiotik gaur itzegiten degunak. Eta pozez atxoratzen dauden Euskal Erriko euskaldunak, izan ditezen zoriontsuak neri entzuten daudenak.

—oOo—

Nere pozakin negarrez nago senide ta gurasoak, diru sorta bat eskuan daukat eta kopa kuriosoak; poilki irabazten ez tarri-buruz egin ditudan pausoak, izan zaitezte zoriontsuak anai-arreba gaixoak.

(Goizuetan)

BEDERATZI PUNTUKOA

Zerbait esan nai nuke nere gogotikan gure izkera gaxo onengatik; auxe ikasi gendun txikiagandikan, orduan ez genduan bera besterikan, ezta izkuntzikan onelakorikan; emen dagonikan au bezin onikan, ez utzi galdutzera Euskerarikan, ez utzi galdutzera Euskerarikan.

(Iruñean)

—oOo—

Jurado jaunak txapel aundi au eman diote Narbarteri eta nik orain bertso goxo bat kantako diet berari. Kariño pisko bat didatela jaunak ez al da nabari? Ondo bizi ta urregor'arte egun on pasa danari.

(Iruñean)

—oOo—

Hemen dituzte irakurleak Narbarte utzi zizkigun zenbait bertso Nafarroako Bertsolarien Txapelketan kantatuak. Hemen bere bizitza, bere gorputza eta arima, bere euskal izkera, bere izaera daude.

Goiko izarren erdian egongo al da Narbarte bukaezineko bertso-kantaldian...

Pedro Diez de Ulzurrun



URDIAIN

BIDEAK ZUZENDU

Egin berri da Urdiain-en «parzelaria» esaten diozuten lurrak elkarretaratzea. Aurreramendu handia izan da. Eguna joan eta eguna etorri, aitzurra bizkarrean hartu ta soro txiki batzueri segi ezin zan bizi. Oraiko erremendu ta tresna berriekin ordu gutxi eginak dire dozein etxetako lanak. Eta bide-tan zer ez da irabazi? Lehengo bide medar estuak zuzendu eta zabalduak dira orai...

Garai bateko gizonak burua jaso balezate! Ugartasun gehiago ba da baztarretan, dirua eskutan, etxe egoki eta jantzi apainak. Jan ere, askoz hobeto jaten da. Eta jendetasunez nola gabiltz?

Gaur sekula baino gehiago alkarrekin lan egin beharra dago ezer egitekotan. Baina ez dute denek balio lagunetako. Gizon berekoiak, berea bakarrik ikusten du; bere burua beste jainkorik ez du. Bere alderdikoa ez dana gaiztotako josten du. Hau da gaurko bekatu nagusia, eta diru zikina bere mutila.

Eguberriak beste bide bat erakusten digu. Jainko gizon egina ez zebilen beretako ezer bila. Jainkotasunez erantzirik behartsu egin zan eta txabola zar batean sortu. Gizon guzien-ganak maitasunak eragiten zion...

Aitziber Gaztediak lan asko egin du. Batzundako piszinak dira bere eginkizun nagusia; futbolero gauzak nahiago dituzte beste batzuk eta konten dira aurtengo jokalaritza eta zuzendaritza. Halare, ez dira hoiek beharrezkoenak. Elkartu ez ba lira, Urdiaingo gazteak ez zen halakorik egingo herrian. Batasunak sortu du indarra.

Batasun horrek ematen ditu lanak. Ba dira azpizanean saiatu nahi dutenak, eta beren alderdiko ez diren anaiak merke salduko lituzketenak. Lotsa da. Azi guzietatik ba da lurrik hoberenean ere. Gogoan izan: gizon arteko on ez dena koba zulotako hobe da.

Bakoitzak geuron barneko bideak zuzentzea izango litzake Eguberriko deia. Geurez pixka bat hustu

dan onari lekua uzteko. Gizatasuna eta Jainko legea, adiskidantza jatorrean elkartzen dira biak.

IGANDEAK

Nola nahi dela, neguko igande batzuk betetzen ditugu. Denbora berean gazteak ba dute zerbait eta balio duenik aterako balitz hobe.

Askok pilota jokua dute gogoan. Guk ere bai. Zenbat eta gauza gehiago, esker hobeak danentzat. Horren atzetik gabiltza danok.

Pilota plaza batek, gainera, beste zulo asko bete lezazke herrian. Teilatua duna izan beharko luke. Horren kokka haundiena diru aldetik dator. Orai hogeitaz urte egin balitz merkeago egingo zen. Eta hementik urte batzutura ez da gutxiago gostako...

Bide onez dijoaz gauzak eta gerta laike oraikotik zerbait ateratzea. Asmoak ba dira eta gogoia ere bai.

Bitartean ostikoka dabiltenari lagunduko diegu.



ARBIZU

Herrian ba ditugu bi soziedade. Bat «Kaxarna», «Argi Bidea» bestea. Herriaren onerako daude bi soziedade hauek. «Kaxarna-n» gehienak ezkonduak dira. Orainarte emakumezkoa etzan pozik arkitzen tabernetan ta gutxitan ateratzen zan tabernetara. Bi soziedade hauek egin diranean euren etxean bezala arkitzen dira.

Egia da «Kaxarna-n» neskak ez dutela parterik. Sozioak gizonenak dira, baino gizona bere andrearekin joan ditek.

«Argi-Bidea»-n neskak ere sozioak dira ta bertan dauden lanetan parte hartu dezakete. Baina bi soziedadetan gauz bat egin da ona: *elkartu*. Neskatoak mutikoen batean ta familiak familiarekin bestean. Bein ere elkartu gabe ez diogu lagunduko elkarri.

Orainarte «Kaxarna»-k afarietako besterik ez du balio izan. Juntakoak ongi ikusi zuten «charla» edo hitzaldi batzuk prestatzea ta hala egin zuten. Hitzaldi hauen elburu edo finalitatea joaten dan jendea formatzea izandu da. Argi ta garbi ikusi zuten denak hitzaldi hauen elburua. Begi onakin ikusi du «Argi-Bidea»-k ere «Kaxarna»-k eman duen pausoa. Ongi dago lokal hori afari batzuk egiteko erabiltzea, baino gizonok ez gaitezke beti afarian ibili. Gizonak sabela bete behar du, baino hori abere edo animale batek ere egiten du. Gizonak zerbait gehiago behar du. Gizonak bere burua formatu egin behar du. Hortarako informatu beharra dauka. Danok daukagu formazio baten beharra ta Arbizu-n gehiago. Formazioa irakurriaz, leituaz, hitzaldiak entzunaz, bestearekin hitzeginaz eskuraten da. Arbizu-n gutxi irakurtzen da ta ez daukagu formazio handirik. Gai askotan dugu formatu beharra: zenbat dakigu sexualitatean, religioan, politikan, ta abar...?

Gaurko gurasoak semeen galdera askori erantzuteko gai edo kapazak izan behar dira. Semeak ere formazio bat eskatzen du, baino ez kanpoan bakarrik eman behar diotena etxekoa ere bai. Ta etxekoa da inportanteena. Zergatik enteratu behar da gazte bat karrikan sexualitateko problemataz? Horrelako gauzetan etxea da eskolarik onena ta gurasoak maisurik onenak. Hortarako gurasoak formatuta egon behar dira ta gero semeeri eman. Hortarako irakurri egin behar dute, «charlak» entzun, informatu... ta abar.

Horregatik «Argi Bidea»-koak ere bide horretatik jo nahi dugu. Gazteok formazio baten beharra ikusten dugu. Elkarri lagunduaz, hitzeginaz, hitzaldiak entzunaz formatuko gara. Ta ongi ikusi dugu «Kaxarna»-k prestatutako hitzaldiak. Hitzaldi sail hau «matrimonioari» buruz zan. Ilbeltzaren 17-an eman zan lehena. Ez du kalterik egin herrian. Baina izandu da bateon bat hau galerazi nahi izandu duena. Arbizuaren aurka joan dena. Arbizuarrak formazio horren beharra ikusten genuen ta galerazi nahi izandu digute. Zer nahi duzute bada, gure semeeri jaten ta jateko irabazbidea bakarrik irakastea?

«Kaxarna»-koak baimenik eskatu ez ba dute, horren beharrik bazez gonik ere ez zekitelako izandu da. Baina aurrerantzia baimena eskatuta egin ditezke horrelako hitzaldiak. Ez etsi. Baimenarekin, baino eman jarraipena edo kontinuazioa hitzaldi hoieri. Ez gelditu bidean; bide onetik zoazte ta. Hitzaldi hauek probetxu asko ekarri dezagutela.

Razkin


GOIZUETA

ANDRES NARVARTE BERTSOLARIA IL DA

Gau lehenengo aldiz nere bizian bidaltzen ditut letra hauek pape-retan argitaratzeko, bada uste dut merezi duela euskaltzale geran denak lagunzera gure Diputazioak orrelako borondate onakin ateratzen duen «Principe de Viana» Errebista oneri.

Asiera saminezkoa eman behar diot bada yakin erazi nai dituzet ANDRES NARBARTE (Shalto) gure bertsolari ainbeste parra eraginazi ziguna ateraldi azkarrakin il dela.

Aspalditxoan bertso lana utzia zeukan osasunez ez zebillen-ta ongi, maiz burua pisko bat nahasten zitzaion eta lehengo larunbatean illaren bederatzian arratsaldeen



Nekazariak

Bertze lekuetan bezala Baztan aldean ere baserriak ustutzen ari zaizkigu. Zenbaitzuk taxutzen dute joandanko ogeio urte hontan 80 tik goiti izanen direla ustuak eta bertze zenbaitzuk diote 100 etik pasa izango direla. Gaitz hau barreyatzen ari da eta ezta kigu hemendik amar urtetara zer ikusi behar ote dugun. Gehienak maixterrak dira eta hoietarik gehientsuenak baserri itipiak eta probetxu gutikoak, hortako dine bai omen dire hoien artean aski onak. Bazterrak ez dira ez arras galduek, bertze baserriarrek beren gain hartuak bait-dituzte. Halare zenbait lekutan lenago belai ta landa ederrak zirenak, orai sasiz estaliak dagozi. Eta gure eskualdean zenbat yende gutiago, batzuek herriera yautsi direla eta bertzeek Frantziara, Ameriketara eta hiri aundietara lanaren billa eta bizi-bide hobeagoko baten billa. Zer zorigaitza gure eskualdea ari da ustutzen.

Baserriak ustutzen eta mendiak zikintzen. Lenagoko aldian iretze gutiagoko moztan da eta denbora batez ire-zelai ederrak zirenak orai denak ete ta sasiz beteak ikusten ditugu. Hori dela bide basurdeak nausitzen hasi zaizkigu eta erratan dutenez urte hauetan asko ugartu omen dira. Eiztariek hortxe dabilta basurdeen gibeletik eta aurtengo negu hontan bai omen dituzte bat baño gehiago botaiak. Erratan dute basurdea aunitz ugartitzen balin bada, gure mendietara otsoa ere etorriko dela, pizti hunek basurde-kumea asko maite bait-du eta janari horren atzetik ibiltzen baita. Bete ere eztugu pizti tzar horren beharrik.

Nekazariak ere baditu bere kezak eta arrazoñarekin, joan den udazkenean idortekak beiaiek erre zituen eta hortaz soro guti bildu omen zen eta orai neguaren biotzean eta sabaiak ustutsek bada bazkaren exkaxia, gero azienta bazkatzeko pentseak erosi behar eta hok ere garesti, gauzak ez doazi yendeak nai bezala. «Siloak» edo belar-karobiak dituztenak hoiek hobekixago daude, badute siloko bazka berdea, sabaiako belar idorra eta bertzeek bezala arbia ere. Belar-karobi edo «Silo» delako hoiek solas-bide aunitz eman dute. Orai dela borts urte Baztan-Bidasoko eskualde hontan 8 edo 10 besterik etziran denetara 700 metro kubiko belarrakin. Borts urte hauetan aurrerapenak izan dira eta yendea elartu eta ikusi duelarik «Silo» hoien abantailak, orai Baztan-Bidasoko eskualdean bai omen dira 120 belar-karobi 9000 metro kubiko belar gordetzen dituztenak, eta badugu uste aurtan ere andana bat gehiago egingen dituztela.

Baztan aldean beti izan dira artalde onak eta hemengo bildotsak fama aundia dute, onak eta goxoak yateko. Artaldeak tipituz doazi eta ezta arritzekoa, alde batetik mendiak zikintzen eta esten ari direla, bertetik artzain gutiagoko eta mendietan bizi direnak ere gutiagoko direla, beti ere arrankure franko bazterretan Erratan dute Baztanen badirela 35000 ardi eta 25000 Maiderrekan; badira bai oraindik baina hara Erratzun zer gertatzen den. Orai dela 10 urte herri hontan bai omen ziren 15000 ardi eta orai 7000 bertzerik ez dire. Gañerako herrietan ere gauzak gisa hortan doazi.

Baztango aratxearen fama bazter guzietara barreyatua dago eta hemengo txekorrak badute arrakastia. Igaro den urte hortan Baztandik atera omen dira 2000 aratxe denen artean 400.000 kilo eman dituztela.

Zerrikumeak ere izen aundikoak dire eta paperak diotenez Baztan-Bidasoko eskualdetik astero aste 1000 zerrikume ateratzen omen dire. Baina zoritxarrez prezioak edo sal-neurriak arras baje daude, eta orai illabete batzuk zerrikume bakarra 1250 peza pagatzen zituztenak, orai 600-700 peza besterik ez dute ordaintzen. Nekazalgeok irautekotan laguntza gehiago behar luke.

Beti ere arrankura bazterretan, yendea kexu eta gazteek aise-tasunak eta bizi ona maite, lan bortsizak alde batera utzirik. Bizi beharrik nekeak eta naigabeak dakarzki eta bizitzekotan lana egin behar eta lanak «purdibeltz».

ENTZULE

yuan zenbere iralekura, ote edo añarra batzuk erretzera, eta suak uste baño indar geiago artu, ezin itzaliz dabilela ikusi dute auzokoak, eta laisterrean yon ta atera dute suan tartetik erre gabe, baño dena nekatu eta ebaindua, itza justu justuan duela. Bere baserriako bidean nabaitu du eriotza datorkiola eta esan diote:

«Motillak lagundu nazazute Aita gure eta Nere Jesukristo Jauna esaten iltzera neak eta».

Eta esan bezala bidean il zaiote. Igandean illa bere lur ematea gendun eta erri guziak lagun egin genion.

Naparroko txapelduna izana zen eta erri askotan Goizueta, Leizta, Lekunberri, Lesaka, Iruña eta asko geiagotan lehenengo aterea zen.

Badakizkit bere gertakizun batzuk oso xebreak neronekin bere bertso lanetan dabilela gertatuak eta urrango aldian kontatuko dizkizutet. Gaurkoan bakarrik bertsotzale zeraten guzietari Aita Gure bat eskatzen dizutet bere animaren alde.

Sebeino



SALDIAS

OIAN GIZONAK ETXERA

Ongi-etorri biotzekoena ematen diegu erri ontako oian gizoneri.

Lendabizikoak, Santu Luzi egunera-ko etorri ziran. Beste sailtxo bat Egurrirako, etorri da. Etorri diran guziek, ongi etorri dira, osasun onarekin.

Baño oraindik iru sailtxo etortzekoak ditugu, au da, zortzien bat mutil.

Espero dugu laster etorriko dirala. Tarte onetan bialtzen diegu gure agurrik beroena.

TELEBISIOA MANTXENEO ESKOLAN

Joan den bi urtean, Mantxeneko eskolan bazuten telebisio-tresna, baño ikusten etzalakoz, geldirik zauketen.

Aurtengo Urrian Iturengo Fidelek ikusteko gisan jartzeko saio batzuek egin zitun. Baño oso ongi ikustea ez omen zun erditsi. Eta etsia artu zunean, utzi zun lana.

Gauzak ola zeudela, Don Bizente, gure mediku jaunak, Musindeneko alorretik Martintxeneko ardi-borda atzera artuta, saio bat egitea erabaki zun. Saioa ongi atera zitzaion: ongi entzun eta ongi ikusten zela, deneri idurittu zitzaigun.

Gero tresna guziek bear bezala jarri dituztenean, ongi ikusten omen da. Maistra ta umetxoak oso pozik daude, eta Urrutiñ-aldeko familliak ere bai.

Mantxenekoek eta Intxurikoek, saio onetaz baliaturik, telebisioa beuen etxeetan jarri dute, eta kontent daude ongi ikusten dela. Eskerrrik asko, Don Bizente.



Lesakan beste urtetan bezala aurtan ere OLENTZERO TALDEEN NORGEIAGOKETA EGIN DA.

Aurtengoa ESPARTZA izenekoa izan da, JOXE EMILIO ESPARTZA zaren oroltzapenez.

Hona hemen garalle gertatu dan taldea.

Batasunari buruz solasak

Solas hauetako azken artikulo honetan, planifikazione baten antzeko zerbait azaldu nahi nuke. Ohartzin naiz, batek bakarrik ez dezakeala nehungo jokabiderik finka; baina nolabait asi behar denez gero, bihoa hemen nerea. Honelako lanak dituzken uts eta akatsak gogoan izanik.

—Lanari lotzeko —beste egintzatan bezala— helburu nagusi eta gidariak finkatu behar dira. Gero, eginkizun guztitan haien arauera obratzen joateko. Mintzairari buruz gagozkionez, ardatz-eragilea hau dela erran daiteke: euskeraren salbatzea. Eta horretarako, sendakizun bakarra bezala, euskeraren bateratzea. Demografi-oinarria sakonduz, ekonomiko, politiko, jakintza arazotarako beharrezko dugun mintzaira gai bat eduki ahal dezagun. Itz bitan, gure iraun-nahia.

Gogo nagusi horren betetzerat doazin bideek (benetan, eta ez ametsetan) —berri ere erranen dut— nahiaren eta ahalmenaren arauz joan behar dutelaren ustekoa naiz. Besterik ez daiteke eta.

—Lehen urratsa, gramatikako utsak, fonetismoak, itzak osorik, eta horrelakoen zuzentzea izanen litzake. Batez ere, honoko joideteetan:

1) Pedagojiarekikoak: ikastoletan, eta bestetan, andereñoak, irakasleak eta, afera horietan gauzak antolatuz. Horretarako behar bada, irakasleen ezitzerako antoiatu ikastaro, elkargo eta antzekotatik asi beharko litzake.

2) Euskeraz irakasten dabilzanen artetan, batzorde nagusi bat moldatuz, haiek funtsean jokabide berdinak eraman ditzaten.

3) Jeneralki: batetik, alfabetatze taldeen bitartez; eta bestetik, aldizkari eta liburuen bidez (argitaldarian, gutienik, uts haiek zuzen lezazkean orraztatzaillerik edukiz).

Hori dena, nahi-eta-nahi-ekoa da. Egin dezakeguna. Denok onartzea hainbeste kostatuko ez litzazuke. Berma gaitzen, beraz, premiazko eta ahal dugun horren antolatzen.

—Bainan, lehenbiziko punduan aipatu gauzen betetzeko, eta ikastola-maillan, behar-beharrezko ditugun iztegi, texto xume, eta beste gauzen moldatzeko, talderik behar da. Hauk osatzerakoan, izkuntzalariek, irakasleek, idazleek, psikologoek, soziologoek, antzelariek, eta horrelakoez zer-ikustekorik frango dukete.

—Taldea horietan beretan, lehen beharrak betetzen diren arauera, beste gai sakonagoen aztertzen, taxutzen eta bateratzen joan behar litzake. Lana maillatuz, alegia. Konparazione, deklinazioneak (onuragarria eta erreza litzake hau lehen momentotik bateraturik adieraztea), iztegi nagusiak, aditza eta beste.

—Sail horietan gaiak zentziki mugatu ahal izateko, kontuan artu behar liraken azter-bideren artean, neri honoko hauk, baitaez-badakoak iduritzen zaizkit: gramatikako legeak, edadura, edertasuna, klasikotasuna, ohidura eta sozial alderdia.

Bainan, bederzka aritzean, zail da jendea bat etortzen erdiestea. Behar bada ez xoilik egilerik, eragilerik ere baizik. Eta talde gai eta serioz batzuk moldatzen joateko, elkargorik behar da. Badiara batzuk; bat Euskalzaindia (eta egintza hauetarako bere laguntzaile diratekeanak: Principe de Viana, Euskerazaleak, Euskeralagunak, eta abar). Gerla ondotik harek deus guti egin duela, askoren ustea da. Nik, egia erran, zertxobait aritu dela dudakut, bainan nehundik ez, egiten ahal zen guztia. Eginak egin, egun alde guztietatik euskal-instituzionerik behar dugu; bat Euskalzaindia daiteke. Loakarturik baldin badago, pizt dezagun, indarririk demaigun, eta agian, euskeraren arazotarako beharrezko dugun mintegia daiteke. (Ez dut Euskalzaindiak fetitxe bat egin nahi. Beste egokiagorik baldin bada, hainbat obe. Nik hura aipatzen dut, hor dagoelakotz, ahalmenik dukealakatze ameka gauzetarako, eta egun, besterik ezean, egokiena deritzaidalakatze).

Bertsua delakoan nago, euskaltzainburu berria den Luis Villasante jaunaren gogoia. Bai eta beste askorena ere. Duela denbora guti, Mitxelena jaunak Donostian eman garrantzi handiko ikastaro batetan ere, azken finean guti gora behera, gauza bera zion.

Helburu horri, beraz, buru-belarri atxiki behar gintzazko. Egun, pikotarat joaki suntsi ez gaitzen, euskera arazoan —besteetan bezala— ildo nagusia moldatuz, bakotxa bere saillan lanari beneran lotzea besterik ezin baldugu.

Anko Sendoa

PATXI ARRAZOLA ta LEITZA

Dozena bat urte, gutxi gora behera, Patxi Arrazola, Urangako Paper Lantegian Zuzendari zegoela, Leitza-ko herria ezagutzera etorri zan. Arkitu zuan herri euskaldun zoragarri bat, pagoz estalitako mendiz inguratua, baserri txuriz apaindua. Milla ta bost eun bizilagun zeukan erdiz t'ardi herrian eta baserrietan. Garai artan 105 baserri. Auen bizi-bidea nekazal-koan zan ta herritarrena berriz, batzuk salerosian eta geienak herritik kanpo billatu behar zuten lana. Asko ziran batez ere gazteak basoan lan egiten zutenak, neskatx neska joaten ziran eta famili osoak zijoazten Guipuzkoako herrietara industri lanera.


Biotz zabaleko euskaldun bat azaldu zan Leitza-ko herriak zeukan arazo lasai erantzun bat eman naiez; Patxi Arrazola. Bere jokabidea auxe izan zan: lendabizi, lantokia sortu, irabazbidea herritarrentzat jartzeko. Bigarren, bizitegiak eta irugarren, ikastolak.

Asieran estuaidi gaitzak eta larritasun izugarriak izandu zituan lanbidea jartzen. Deus egin gabe zegon. Dana berritik asi behar zan. Lurra erosi, lendabiziko paper makinak jartzeko lekua prestatu, zuzendaritzako ta lanean erakusteko gizon eskolatuak billatu, lendabiziko ordainketak egiteko dirua arkitu eta gañerakoak. Piskanaka asi zan herriko jendea lanean. Bost bat urte barruan etziran herritarrek aski eta jende arrotza ekarri beharra zeukaten. Errez aski jende ori billatu ta ekartzeko era bazegon baina bereala jeiki zan Patxi Arrazola eta bere gain artu zuan lantokia langillez ornitzea. Bera ibilli zan herriz herri baserri, zahar eta gazte, eskolatu ta eskolatu-gabe, euskalduna izatea aski eta Leitza-ko Papeleran bazuten lana ta irabazbidea. Amabi urten buruan, gaur Leitza-ko Papeleran 1.140 langille daude. Auetatik 580 sei autobusetan datoze inguruko herrietatik.

Herria azitzen asi zan. Garai artan 1.500 bizi ziran eta gaur 2.500 pasatuak dira. Bizi leku premia sortu zan. Laister Guraso Katolikoen Elkarte eraiki zan eta beraren bidez egin ziran Huarteneko 100 bizitza berriak. Urte artan bertan Elkarte onen bidez billera toki, jan leku eta ostatu atsegingarria «OIAL-DE» egin zan.

Baian oraindik Patxi Arrazolak biotzean zeukan ametsik zoragarri-etakoa ez dugu aipatu. Herri bat lantokiz, bizibidez eta bizitegiz ornitu arren, herritarrek buruz ez badiara jauntzen lehengo malla berean gelditu da. Beharrezkoa zan bada ikastetxe berri ta ugari egitea, Erakusleak arkitzea, ikasleentzako josta lekuak jartzea ta abar.

Era ontako lanak gastu audiak eskatzen zituan. Ikaratu gabe, ekin-tza oni erantzuteko, Leitza-ko indar



bizi guziak elkartu ziran; Parrokia, Ayuntamentua, Gurasoen Elkarte ta Papelera. Onela jaiot zan «PATRONATO AMAZABAL» deitzen dan elkarte. Patronato onen aita, zuzendaria eta batez ere bere espiritua Patxi Arrazola izan zan. Gaur Patronatoari esker Leitza-ko herriak ikasbidean eskubide audiak dauka: Ikastola bat bi urtetatik sei urtetara 80 aurrekin. Sei urtetatik amalau urte bitartekotzako ikasleku guziak bilduta jarri dira, eta 450 ikasle daude. Auetatik 200 etorri ta joan autobusetan egiten dute eta bazkaldu eskolako jan tokian. Bachiller egiten 55 ari dira. Eskola Profesionalean eta Nekazari Eskolan 100 mutil gazte. Ikasle guzti auzentzako pillota joku leku ederra eta beste lau josta leku egiteki daude.

Onelako lan ederrak egin ondoren bere begiak euskal herriko nekazari ta baserrietan jarri ta zeukan. Nekazaria gutxienean lagundua ta eskolatu, oien premirik aundie-nean ikusten zuan. Orain fabrikako buru-austerik aundienak uztean bere amets eta gogo guzia nekaza-

ritza laguntzeko elkarte bat sortzea zan.

Amets eta gogo bikañekin burua beterik zeukala, 54 urte zituela, Patxi Arrazolaren biotza, bat batean itto ta gelditu zan, joan diran Eguberrietan, Gabonetan, eta Jesus Aurak gogo oneko gizoni zori onak eskeintzea etortzean, zori onik ederrena emateko bere Etxera erabat eraman zuan.


Leitza-ko herriak izan dun laguntzaile-rik aundiena, bere aldaketaren oñarria, galdu du. Gorputza illobiratu izan da bainan bere espiritua eta ekintzak emen gelditu dira denen onerako eta aurrera biderako. Leitza ez du beñere bere izena ahaztuko eta gero ta geiago du gogoratuko. Berari eskeñi dezaiokeen gorapenik iraugarriena bere espirituz jauntztea, bere eginkizuna eta asmoak ezagutzeta ta aitorztea, eta oietaz baliatzea izango da.

Jainko Aita onak betiko saria eman dezaiola.

Amazabal

Euskal izenak

3.- MARI



Euskal Herriko Ama Birjin baten izena ezarri nahi duenak haurrari, MARI sartu behar izaten du aurretik. Kristau kutsua Mari hitzak ematen nunbait!!

Askok ez dute jakinen nundik datorren jokabide hau. Erromak erromatarren kutsuarekin zabaldu zuen sinestea. Kostantinori bere mendeko herri guzian batasuna komeni zitzaion, eta gaizki ikusiak ziren baztarretan eliza herrikoiak. Duela urte gutxi arte latinez ematen ziren eliz-ikasgaiak; eta gehiago dena, latinez izkutatzen ziren elizkizunak.

Izen kontuan ere erromatarren mendean ginen. Beren izenak eta Liburu Sandutan sartutakoak beste izenik ezin zen on-hartu. Haiek ziren bakarrik santuak; gureak jentilenak. Txarrak.

Baina, Mari izenarekin polita gertatu da. Antziñako herri askok ba zuten Jesukristo mundura etorri aurretik izen hau, eta euskaldunak ere bai. Ekaitz eta eurien eragilea bera zen; eta lurren ugaritasuna eskuan zeukan. Gero, kristau sinestearekin, indar handia hartu zuen Jainkoaren Amak eta baztar guzietan sortuz joan ziren Andra Marien eliza ta baselizak. Bera da emakume izen ugariena Euskal Herrian.

Gaurko joera laburpen aldera dioja; errextasun bila. Aitziber edo Idoia esaten duenak ba daki Ama Birjinaren izena dela; eta hori aski du. Elizak ere ez du alderdi hortatik eragozpenik. Erromatarren legebidea ezin bota duten mordoiloekin izaten dira kontuak. Joan den lau bost urtean polekitxo eskua zabaltzen hasiak ziren batzuk, alegia Mari gabeko izendegia liburutan sartzen; bainan, azken bolara hontan berriz trabak ba direla entzuna dut.

Galdera bat nuke orai malezi printzarik gabe egitekoa: Jesukristoren Ama, Mari izan zen bezala beste bat izan balitz, on hartua izango al-zen Mari hurre artean? Izena esan nahi dut. Erromatarren mitologi izenen eskubide bera zuten gureak, Jainkoaren aurrean; ez hala, gaur ere, lege gizonen neurri estutan.

Kristau zinizotasuna ez dago izenetan, egunoroko bakoitzaren jokabidean baizik. Ez du Ama Birjinarenganako zaletasun gehiago esan nahi Maria Arantzazu izen osoak, Arantzak baino. Hitzak, hitz hutsak: gezurra. Zertako ez, orduan, bakoitzari bere eskubide osoa eman. Haur handi batzuen kontuak besterik ez.

SAGI

GERTAEREN GORABERAK

Iñauteri inguru ontan, zergatik ez ohar gertaereri egiten ditugun moztarrietan?

Gertaeren berri-emateak autetzen dituen soñekoak ez dira denak egieri ongi dagozkionak izaten.

Nolako zaletasun ta goseakin goazin geren gustoko kolorea gertakizunerik ematera! Ta nolako idarrean goazin ere gure alde ditugun radio, telebisio, egunkarietara, atsegin zaizkigun soñekoak gertaerentzat billatzera!

Gure urbilean gertatutako zerbaiten berri ematean, egia behar bezala errateaz ahanzten bagara, gezurrezko soñeko polit edo itsusi batekin iauntzete ta gertaera den ez bezalakoa agertzeko arrixkuen iartzen gara.

—oOo—

Zorro-besta batean arkitu ginen auzoko bi, bertze aunitzen artean. Egia da: ez ginen murriz-murriz gelditu iateko ta edateko aferan. Biarmanian iakin gintuen gure berriak auzokoengandik. Batek erran zakun: «Leze zuloak baiño beltzago arkitzen omen zinatzen atzoko bestan; ez irri ez solas iñorekin...». Andik bereala bertze batek: «Atzo alimaleko eperra arrapatuek omen zerate bi lagunok...». Ta geren uestez bi berri oken tarteen zagon gertatutako egi egia: ez ain otz ta ez ain bero; bai epel...
—oOo—

Urruneko gertaeren berri billen, radiora, telebisio ta paperetara goazi: baiña geren gustokoetara: geren gustoko soñekoa iauntzete gertaerari.

Nik laxo ikusi nai nituzkenak presondegien egoiteko bakarrik on direla dion radio, telebisio edo papera nik onartu? Ez orixe!

Bakoitzak bere gogoia: ta au ezin ditekenean (telebisioan, geienok, ematen dakutena irentsi behar dugu naski), bakoitzak ahal dugun eran gertaera geren gogora iauntzete, andik edo emendik, entzuten edo ikusten dugunetik trapu zerrendak atera, berriarentzat gustoko soñekoa asmatzeko.

Benjamin Mendoza ta Amor Manilan, Aite Saindue il naiez zabilela siñetsi nai zutenek telebisioko itzek entzun zituzten bakarrik, argazkietan (fotoetan) gutti onhartuz. Ezin salduz zeukan oial polletek nolabaitere saltzeko bere izena munduen zehar ongi barraiatzeagatik Aite Saindue il-nai-itxure egiten zabilela margolari gizajoa diotenez berriz elkarrengandik franko urrun ikusi zituzten, arkazkien, txuriz iauntziteko gorputze ta bertan sartu beharreko ezteñtxoa.

Gertaera, bakarra. Berriak emateko ta ikusteko erak, nork daki zenbat!!

Egi soile bizkitartean, nola? Bilux-biluxik ta otzak daldaraka, soñeko on baten ordez, trapu tzarrak iartzen dizkiotelako.

Iñaute inguru ontan galdeera: Bizitz osoa iñauterit ote?

ARITZ